

ESKAINITZA INMOBILIARIOA

1999ko 3. hiruhilekoa

Txostena

E1186

1999ko azaroa

1. kapituluu

SARRERA

2. or.

1. SARRERA

- ρ Ondoren aurkezten dena, 1999. urteko bigarren hiruhilekoari dagokion EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko azterlana da, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak egindakoa.
- ρ Txosten hau lantzeko erabili den metodologia, etxebizitzak eskaini dituzten EAEko sustatzaileei eta jabetza inmobiliarioaren agenteei (JIA) egindako zenbait inkestatan oinarritu da. Sustatzaileen kolektiboan egindako prospekzioak, kasu honetan¹, etxebizitzen eskaintza egiten duten 81 identifikatu ditu (bost etxebizitza baino gehiago dituzten sustapenak); 125 agente inmobiliarioari egin zaie kontsulta. 1.1. taulak bakoitzari dagozkion laginen banaketa geografikoa jasotzen du
- ρ Inkesta egiterakoan, eragile bakoitzari, une horretan (iraila) zuen eskaintza koantifikatu eta koalifikatzeko eskatu zitzaion. Sustatzaileen kasuan etxebizitza berriak dira, noski, eta jabetza-agenteen kasuan, berriz, etxebizitza berriak (sustatzaileen kontura salduak) nahiz etxebizitza erabiliak (partikularren kontura salduak) dira. Bertan, merkatuaren egungo egoerari buruzko galdera baloratibo batzuk ere barne hartzen ziren.

1.1. taula. Egindako inkesta eraginkorren lurraldekako banaketa.

	SUSTATZAILEAK	INMOBILIARIAK
<i>Araba</i>	19	12
<i>Gipuzkoa</i>	33	51
<i>Bizkaia</i>	29	62
<i>EAE</i>	81	125

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 1999ko 3. hiruhilekoa.

- ρ Txostena irakurri aurretik egin beharreko oharren artean, prezioak, EAEko eskaintzen zati nagusia osatzen duten etxebizitza *kolektibo*ei (blokeetakoak) dagozkienak direla gogorarazi behar da.

- ρ Denborazko bilakaerari dagokionez, txostenean, behatutako aldagaiak (etxebizitza-kopurua edo prezioak azalera erabilgarriko) aurreko urteko hiruhileko berean izan zuen balioarekiko izan dituen aldaketak islatzen dira bereziki, betiere azken hiru hilabeteetan izandako bilakaera ere kontuan izanik.
- ρ Etxebizitzen prezioei dagokienez, batez besteko prezio haztatuak² direnez, beren bilakaera ondorengo faktoreen emaitza dela azpimarratu behar da: prezioak, prezio-maila bakoitzeko etxebizitza-kopurua eta eskaintzaren kokapen geografikoa. Etxebizitzen batez besteko prezioetan eragina du, halaber, eskaintzen diren etxebizitzen batez besteko azaleraren bilakaerak eta, orokorrean, beren tipologiak.
- ρ Zentzu honetan, eremu espazial jakin bateko prezio-aldakuntzak, batez bestekoen aldakuntzak izango balira bezala ulertu behar dira. Hau da, aurreko denboraldietan baino prezio baxuagoak ez dira eskaintzen diren etxebizitzen kostuaren prezio-jaiste orokor gisa derrigorrez ulertu behar; aitzitik prezio txikiagoko etxebizitzen presentzia handiagoa duen eskaintza-egitura baten konfigurazioari dagozkiola uler liteke.
- ρ Baina hori bai, ahal den neurrian etxebizitzen "saskiaren" osaeran izan diren aldaketek prezioen bilakaeraren interpretazioan eragin dezaketen distortsioa saihesteko, *eredu-etxebizitza* deitu den "produktu" homogeneoago baten jarraipena barne hartzen ari da. Honen definizioan parte hartzen duten eskakizunak hauek dira: etxebizitza berria, kolektiboa, sustapen librekoa, zuzenean sustatzaileak eskainitakoa, akabera "normalekoa" eta 60 eta 90 m² bitarteko azalera duen etxebizitza. Akaberaren, merkaturatzeko moduen edo tipologiaren arabera eskaintzaren osaeran izandako aldaketek batez besteko prezio globalean izan dezaketen eragina (edo interferentzia) neutralizatzeko helburua du.

¹ Dena den, udako oporraldiak duen eragin negatiboa kontuan izan behar da, garai honetan zailagoa baita sustatzaileak aurkitzea eta hauek prest egotea.

² Etxebizitzako zein metro karratuko batez besteko salmenta-prezioak etxebizitza-mota bakoitzaren bolumenaren araberako haztapena eginez kalkulatu dira.

- ρ Hala ere, ematen diren emaitzek lagin izaera dutela esan beharra dago eta hau bereziki garrantzitsua da eskaintzen koantifikazioari dagokionez. Etxebizitza erabiliei dagokienez azpimarratu beharreko beste gauza bat zera da: aipatutako prezioak saltzaileak *eskatutakoak* dira eta hauek benetan ordaindutakoetatik edo bi alderdien artean negoziatutakoetatik oso desberdinak izan daitezke batzuetan.
- ρ Emaitzazko txostena sarrera hau barne hartzen duten zazpi kapitulutan egituratzen da. 2. kapituluak eskaintzaren eta bere bilakaeraren ikuspegi orokor bat ematen du, hau da, bere bolumena etxebizitza-motaren eta azalera erabilgarriko prezioen nahiz Euskal Autonomia Erkidegoaren mailako prezio absolutuen arabera (Lurralde Historikoei dagokien analisia ondorengo kapituluetan egingo da).
- ρ 3. kapitulua etxebizitzaren salmentari buruzkoa da eta hasieran eraikuntza berriak aztertzen ditu, sustapenen ezaugarrietan ematen diren aldaketak nahiz etxebizitzaren eskaintza koantifikatu eta prezioak aztertzerakoan etxebizitzak berak aztertuz. Ondoren, salgai dauden etxebizitza erabilien ezaugarriak aztertzen ditu.
- ρ 4. kapituluan, alokatzeko dauden etxebizitzaren eskaintzaren tipologia, prezioa eta bolumenaren bilakaera islatzen da.
- ρ 5. kapituluan ondorengo eremu espazialeko etxebizitzaren eskaintza eta prezioak zehazten dira: hiriburuetan, hiriburuetakoko eskualde-egituretan, hauek kanpo, eta lurralde historikoetan, hiriburuetakoko eskualde-egiturak kanpo (eranskin batean espazioei buruzko datu gehiago aurki daitezke).
- ρ 6. kapituluak garaje eta lokaletan lurralde historikoen mailan jaso diren bolumenak eta prezioak islatzen ditu.
- ρ Azkenik, 7. kapituluan Euskal Autonomia Erkidegoko merkatu inmobiliarioaren dinamika islatzen da, inkestaren xede izan diren sustatzaile eta agenteen begiekin ikusita, aurreko hiruhilekoarekiko bilakaera nahiz etorkizunerako perspektibak kontuan hartuta.

p Jarraian adierazitako taulan, aurreko hiruhilekoan, hiruhileko honetan eta duela urtebete etxebizitzaren merkatu libreari buruz lortutako funtsezko aldagaien laburpen sintetikoa aurkezten zaigu.

1.2. taula. Etxebizitzaren eskaintzaren adierazleen laburpena. Merkatu librean.

	1998	1999	
	3. hiruhilekoa	2. hiruhilekoa	3. hiruhilekoa
1. ETXEBIZITZA BERRIA			
• Salgai dagoen etxebizitza-kopurua - EAE guztira.....	2.034	2.925	2.074
• Salgai dagoen etxebizitza-kopurua - Lehen aldiz hiruhilekoan antzemandakoa - EAE	732	1.426	850
• Prezioa/m ² a.e. *-Eredu-etxebizitza** EAE.....	206	238	225
• Prezioa/m ² a.e. *-EAE guztira	243	250	272
• Prezioa/m ² a.e. *-Lehen aldiz hiruhil. antzem.-EAE...	251	255	288
• Prezioa/m ² a.e. *-Gasteiz.....	373	283	291
• Prezioa/m ² a.e. *-Donostia.....	405	477	336
• Prezioa/m ² a.e. *-Bilbo.....	263	303	314
<i>Eskaintzen den sustapen-kopurua:</i>			
Guztira	135	143	88
Lehen aldiz hiruhilekoan antzemandakoa	39	58	29
2. ETXEBIZITZA ERABILIA			
• Salgai dagoen etxebizitza-kopurua	7.051	4.781	4.325
• Prezioa/m ² a.e. *-EAE	232	302	317
• Prezioa/m ² a.e. *-Gasteiz.....	325	397	408
• Prezioa/m ² a.e. *-Donostia.....	358	486	482
• Prezioa/m ² a.e. *-Bilbo.....	225	273	265
3. ALOKATZEKO ETXEBIZITZA			
• Etxebizitza-kopurua	1.444	1.031	906
• Errenta/hil *-EAE	86	91	95
• Errenta/hil *-Gasteiz.....	100	106	107
• Errenta/hil *-Donostia.....	108	115	118
• Errenta/hil *-Bilbo.....	92	82	92
4. MERKATUKO INDIZEAK			
• Dinamismo-indizea ***.....	55,4	60,6	66,7
• Salmenten aurreikuspen-indizea (hurr. hiruhil.)***	76,8	48,0	68,7
• Prezioen aurreikuspen-indizea (6 hilabetera)***	68,8	71,4	75,3
• Hurrengo hiruhilekoan eskaintzeko etx. aurreik.....	497	935	487

(*): Mila pezetatan.

(**): Eredu-etxebizitza: berria, kolektiboa, erregimen librekoa, zuzenean sustatzaileak eskainia, akabera "normalekoa" eta 60 eta 90 m² bitarteko azalera duena.

(***): 0 (geldialdi handiena) eta 100 (dinamismo handiena) bitartean mugitzen da.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 1999ko 3. hiruhilekoa.

2. kapitula

ETXEBIZITZEN ESKAINTZAREN ADIERAZLE OROKORRAK

2. ETXEBIZITZEN ESKAINTZAREN ADIERAZLE OROKORRAK

2.1. ETXEBIZITZA-KOPURUA

- ρ 1999ko hirugarren hiruhilekoan egindako inkestaren arabera EAEn **eskaintzen diren etxebizitzak** guztizko kopurua 9.400 unitatekoa da.
- ρ **Salgai dauden etxebizitzak** eskaintzaren %89 osatzen dute eta guztira 8.329 unitate dira; gainerako %11 **alokatzeko** erregimenari dagozkio eta 1.073 etxebizitza dira.
- ρ Etxebizitza **berrien** edo **erabiliaren** kategorietan antzemandako eskaintzaren banaketa ondokoa da: salgai dauden etxebizitzak %48 (4.004) berriak dira eta %52 (4.325) bigarren eskukoak; alokatzeko dauden artean etxebizitza erabiliak dira nagusi: izan ere %84 dira eta eraikuntza berrikoak %16 baino ez dira.
- ρ Eskaintzan salgai dauden etxebizitza berrien **erregimenari** erreparatzen badiogu, %52 (2.074) libreak direla eta %48 (1.930) babestuak (1.129 babes ofizialekoak eta 801 gizarte-etxebizitzak) direla ikus daiteke. Alokatzeko eskaintako etxebizitza berriei dagokienez, denak babestuak dira, gizarte-etxebizitzak hain zuzen ere.
- ρ Duela urtebete (1998ko hirugarren hiruhilekoa) antzemandako eskaintza osoaren bolumenarekiko **bilakaerari** dagokionez, %20tik gorako murriztapena islatzen du; eskaintzan dagoen stock-ak izan duen murriztapen honen arrazoia etxebizitza erabiliaren merkatuaren portaeran aurki dezakegu berriz ere, izan ere, salgai dagoen etxebizitza-kopuruak ia %40ko jaitsiera izan baitu, salmenta-erritmoak izan duen azelerazio nabarmenaren ondorioz³; horrez gain, alokatzeko eskaintako etxebizitza erabiliek neurri beretsuko murriztapena izan dute.
- ρ Etxebizitza erabiliaren eskaintzaren beheranzko joera nabarmen honekin argi eta garbi kontrastatuz, salgai dauden etxebizitza berriek %15eko igoera izan

dute; dena den, azterketa zehatzagoa egiten badugu, etxebizitza berriaren eskaintza osatzen duten bi segmentuetan igoera-maila oso desberdina izan dela ikus daiteke: sektore babestuan salgai dauden etxebizitzaren eskaintzak %34ko igoera izan du eta erregimen librekoan igoera %2koa baino ez da izan.

- ρ Hiruhileko honetan **lehen aldiz antzemandako salgai dauden etxebizitza libreen** kopurua 850 unitatekoa da (eskaintza berri libre osoaren %41); kopuru hau duela urtebete lortutakoa baino %16 handiagoa da.


2.1. taula. Eskaintzen diren etxebizitzaren bilakaera EAEn.

	GUZTIRA	SALGAI					ERABILIA	ALOKATZEKO
		SALGAI GUZTIRA	BERRIA					
			Guztira	BO/Giz. etx.	Libreak			
1994	Batez b.	12.778	11.681	4.721	1.391	3.331	7.029	1.028
1995	Batez b.	12.662	11.681	4.035	1.317	2.718	7.646	986
1996	Batez b.	18.021	16.843	5.106	1.801	3.305	11.071	1.152
1997	Batez b.	16.195	14.638	4.066	1.034	3.032	10.572	1.557
1998	Batez b.	12.298	10.883	3.741	1.493	2.248	7.142	1.415
1998	III	12.013	10.521	3.470	1.436	2.034	7.051	1.492
	IV	10.939	9.701	3.886	1.732	2.154	5.815	1.238
1999	I	11.611	10.422	5.669	2.960	2.709	4.753	1.189
	II	11.247	10.049	5.268	2.343	2.925	4.781	1.198
	III	9.402	8.329	4.004	1.930	2.074	4.325	1.073

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 1999ko 3. hiruhilekoa.

³ Ikus 7. kapitulua.

2.1. grafikoa. Eskaintzen diren mota bakoitzeko etxebizitzaren kopurua eta aurreko urtearekiko aldakuntza-tasak.



2.2. PREZIOAK ETA ERRENTAK

- ρ EAEko **etxebizitzaren merkatu librean** (berriak eta erabiliak batera) **metro karratu erabilgarriko batez besteko prezioa** 302.000 pezetakoa izan da 1999. urteko hirugarren hiruhilekoan. Etxebizitza libre berriak batez beste 272.000 pezeta/m² baliora iristen dira. Bestalde, bigarren eskuko etxebizitzaren batez besteko prezioa %17 handiagoa da orokorrean, 317.000 pezeta/m² hain zuzen ere.
- ρ Eraitza hauek duela urtebete antzemandako prezioekin konparatuz gero, bigarren eskuko etxebizitzaren segmentuan izandako igoera ikaragarria da alderdirik azpimarragarriena, etxebizitza hauen batez besteko prezio agregatua 1998ko hiruhileko berean lortutakoa baino %37 garestiagoa da-eta. Etxebizitza berri libreen batez besteko prezioek ere nabarmenki egin dute gora, baina maila apalagoan: +%12.
- ρ Merkatuaren "berotze" hau azkenaldi honetan batez ere interes-tasen beherakadak eta lan-merkatuaren hobekuntzak bultzatuta nabarmenki ugartitu den eskariak egindako presio zorrotzaren emaitza da; izan ere, testuinguru

ekonomiko orokorraren bilakaera positiboak azalera egin ditu eskuratzeko moduko eskaintza urri eta desegokiaren ondorioz denbora luzean metatuta egon diren premiak, etxebizitza nagusiari dagozkionak batik bat. Eskariaren portaera hedakor honek bultzatuta, salmentak ikaragarri bizkortu dira, stockak murriztu egin dira eta, ondorioz, prezioek nabarmenki egin dute gora.

- ρ **Hiruhileko honetan *lehen aldiz antzemandako* etxebizitza berri libreek** (hasi berriak gehienak) azalera erabilgarriko m²-ko 288.000 pezetako batez besteko prezioa dute (duela urtebete baino %15 garestiagoa); eskaintza berri librearen agregatu osorako lortutako batez besteko balioarekin konparatzen badugu, berriki antzemandakoak (99-III hiruhilekoa) %6 garestiagoak direla ikus daiteke.
- ρ **Babestutako etxebizitzen** batez besteko prezioa 125.000 pezeta/m² da, baina babes ofizialekoak eta gizarte-etxebizitzak bereiziz gero, lehenengoen prezioa 151.000 pezeta/m² da (124.000 pezeta/m² duela urtebete) eta bigarrenena 91.000 pezeta/m² (88.000 pezeta/m² 98-III hiruhilekoan). Joan den urtearekin konparatuta babes ofizialeko etxebizitzetarako lortutako batez besteko prezio altua (+%22) gaur egun eskaintza-mota hau hiriburuetan kokatuta egotearen ondorio da neurri handi batean (sustapenak moduluaren gehieneko topeetan egiten dira eta duela urtebete portzentaia hori %30ekoa besterik ez zen).
- ρ **Azken hiruhileko honetan** burtsa inmobiliarioan **barne hartutako etxebizitza babestuek** m² erabilgarriko 163.000 pezetako batez besteko balioa dute.
- ρ **Eredu-etxebizitzari**⁴ dagokionez, hiruhileko honetan metro karratuko 225.000 pezetako preziora iristen da, hau da, erregimen libreko eskaintza berriaren osotasunerako lortutako batez bestekoa baino %17 gutxiago; hala ere, eredu-etxebizitzarako duela urtebete lortutako prezioarekin konparatzen badugu, gaur egun bere balioa %9 handiagoa dela ikus daiteke (206.000 pezeta/m² 98-III hiruhilekoan).

⁴ Ikus "*eredu-etxebizitza*" kontzeptua azaltzen duen Sarrera.

2.2. taula. EAEn salgai dauden etxebizitzaren m² erabilgarriko prezioaren bilakaera.*


	ETXEBIZITZA LIBREA GUZTIRA (**)	ETXEBIZITZA BERRIA				ETXEB. ERABILIA
		BO/GIZARTE-ETXEBIZITZAK	LIBREAK			
			GUZTIRA	EREDU-ETXEB.		
1994	Batez b.	215	107	211	185	221
1995	Batez b.	231	117	249	209	225
1996	Batez b.	237	116	250	206	233
1997	Batez b.	237	117	246	193	234
1998	Batez b.	243	106	248	206	242
1998	III	234	105	243	206	232
	IV	258	109	255	225	259
1999	I	261	110	233	226	277
	II	282	116	250	238	302
	III	302	125	272	225	317

(*) m²-ko mila pezetatan.


(**) Etxebizitza libre berrien eta erabilien batez besteko prezioa.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 1999ko 3. hiruhilekoa.

2.2. grafikoa. Etxebizitzaren m²-ko prezioen bilakaera, moten arabera.



2.3. grafikoa. m² erabilgarriko prezioak eta aurreko urtekoekiko urteko aldakuntza-tasak etxebizitza-motaren arabera.



ρ **Etxebizitzen batez besteko prezioari** dagokionez, merkatu librean 26,4 milioi pezetako kopurua lortzen da (etxebizitza berriak eta erabiliak batera) eta 9,6 milioi pezetakoa babestutako merkatuan (BO eta gizarte-etxebizitzak).

ρ Salgai dauden etxebizitza berri libreak 25,1 milioi pezetako batez besteko prezioa dute eta bigarren eskukoaren prezioa, aldiz, 27 milioi pezetaraino iristen da.

ρ Euskal Autonomia Erkidegoan **alokatze libreak** eskaintzen diren partikularren etxebizitzen **batez besteko errenta** hileko 95.000 pezetakoa da (86.000 duela urtebete).

2.3. taula. EAEn eskaintzen diren etxebizitzaren prezioaren eta errentaren bilakaera.

	<i>ETXEBIZITZ A LIBREA GUZTIRA^(***)</i>	<i>ETXEBIZITZA BERRIA^(*)</i>		<i>ETXEBIZITZ A ERABILIA^(*)</i>	<i>ALOKATZEKO ETXEBIZITZ A LIBREA^(**)</i>	
		<i>BO/GIZ. ETX.</i>	<i>LIBREAK</i>			
1994	<i>Batez b.</i>	19,3	8,3	20,0	18,5	97
1995	<i>Batez b.</i>	21,5	8,1	22,7	21,0	89
1996	<i>Batez b.</i>	21,0	8,5	22,4	20,6	88
1997	<i>Batez b.</i>	21,1	8,7	20,9	21,2	88
1998	<i>Batez b.</i>	22,2	7,7	20,8	22,7	88
1998	<i>III</i>	20,7	7,5	20,2	20,9	86
	<i>IV</i>	24,3	7,8	21,1	25,5	90
1999	<i>I</i>	23,9	9,4	20,8	25,6	91
	<i>II</i>	25,1	8,8	23,1	26,3	91
	<i>III</i>	26,4	9,6	25,1	27,0	95

() Etxebizitzako milioi pezetatan.*

*(**) Hileko mila pezetatan.*

*(***) Etxebizitza libre berrien eta erabilien batez besteko prezioa.*

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 1999ko 3. hiruhilekoa.

3. kapitulua

SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZEN ESKAINTZA

3. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZEN ESKAINTZA

3.1. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA BERRIAK

3.1.1. Eskaintzan dauden etxebizitzaren sustapenen ezaugarri orokorrak⁵

- ρ 1999. urteko hirugarren hiruhilekoari dagokion inkestan jaso diren eskaintzan dauden etxebizitzaren **sustapenak** 127 izan dira (duela urtebete baino %19 gutxiago) eta hauetan 5.807 etxebizitza barne hartzen dira. Sustapen hauetatik 34 hiruhileko honetan antzeman dira lehenengo aldiz (duela urtebete 42) eta, era berean (salgai daudenen eta saldu direnen artean), 1.534 etxebizitza barne hartzen dituzte (guztizkoaren %26).
- ρ Sustapenaren erregimena kontuan hartuta, sustapenak honela banatzen dira: 88 erregimen librekoak dira (duela urtebete 135 ziren), 16 babes ofizialekoak (duela urtebete 7) eta 23 gizarte-sustapenekoak (duela urtebete 15).
- ρ Sustapenaren **batez besteko tamaina** 46 etxebizitzakoa da. Sustapen bakoitzeko etxebizitza-kopurua 42koa da erregimen librekoen modalitatean eta 54koa babestutako etxebizitzaren artean. Bi erregimenetan *hiruhileko honetan lehen aldiz antzeman diren* sustapenen batez besteko tamaina burtsa inmobiliarioan barne hartutako sustapenen agregatuaren berdina da ia: antzeman berri diren sustapen libreek 37 etxebizitza dituzte batez beste eta babestutako sustapenek 95 etxebizitza.
- ρ 16 etxebizitza baino gutxiagoko sustapen libreen pisu erlatiboa %26koa da eta duela urtebete portzentaia oso antzekoa zen (%27).


⁵ Gainerakoak ez bezala, atal hau sustatzailen inkestatik lortutako informazioan bakarrik oinarritzen da eta *sustapena* erreferentziako unitate gisa erabiltzen du.

3.1. taula. Sustatzaileek zuzenean eskainitako etxebizitzaren sustapenen ezaugarri orokorrak.

	HIRUHILEKOA GUZTIRA	SUSTAPEN BERRIAK
<i>Sustapen-kopurua</i>	127	34
<i>Libreak.....</i>	88	29
<i>BO/Gizarte-etxebizitzak.....</i>	39	5
<i>Sustapenetan barne hartutako etxebizitza-kop. .</i>	5.807	1.534
<i>Libreak.....</i>	3.710	1.061
<i>BO/Gizarte-etxebizitzak.....</i>	2.097	473
<i>Sustapenen batez besteko tamaina (etx. kop.) ..</i>	46	45
<i>Libreak.....</i>	42	37
<i>BO/Gizarte-etxebizitzak.....</i>	54	95
<i>Sustapen libreen kopurua tamainaren arabera</i>		
<i>< 16 etxebizitza</i>	23	4
<i>16-35 etxebizitza.....</i>	33	13
<i>> 35 etxebizitza</i>	32	12
<i>Babestutako sustapen-kop. tamainaren arabera</i>		
<i>< 16 etxebizitza</i>	4	0
<i>16-35 etxebizitza.....</i>	18	3
<i>> 35 etxebizitza</i>	17	2

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 1999ko 3. hiruhilekoa.

3.1. grafikoa. Sustapenen batez besteko tamainaren bilakaera erregimenaren arabera.




- ρ Etxebizitzen **akabera-mailari** dagokionez, *goi-mailako/luxuzko* etxebizitzaren sustapenak %42 dira (%41 duela urtebete) eta *normalak* %58. *Behe-mailako* segmentuan barne hartutako sustapenik ez da erregistratu. Dena den, sustapenaren erregimenak diferentzia adierazgarriak sartzen ditu akabera-maila desberdinen garrantzia aztertzerakoan: izan ere, babestutako sustapen guztiak estandar *normalari* dagozkio eta sustapen libreen %40k baino (98-III hiruhilekoan %52) ez dute halakotzat jotzen den akabera-maila eskaintzen.

3.1.2. Salmenten bilakaera

- ρ Arreta **sustapen libreetan** jartzen badugu, **merkataritza-egoeraren** arabera etxebizitzaren banaketak ondokoa azaltzen digu: hauetan barne hartzen diren etxebizitzaren %50 (%37 duela urtebete) salgai daude, %49 salduta daude eta %1 erreserba gisa geratzen da. Kopuru absolutuei dagokionez, *sustatzaileek zuzenean merkaturatutako salgai dauden* etxebizitza berrien guztizko kopurua 1.851 unitatekoa da. Guztizko honetatik, %37 lehenengo aldiz hiruhileko honetan erregistratu diren sustapen berriak dira.
- ρ Bestalde, **duela hiru hilabete salgai zeuden etxebizitza libreak** bakarrik kontuan izanik, **itxurazko salmenten bilakaeraren** hiruhileko jarraipena egin daiteke. Zentzu honetan, azken hiruhileko honetan joan den hiruhilekoan salgai zeuden etxebizitzaren %58 saldu dira (sustatzaileen bitartez).
- ρ Urteko azken hiruhilekoan balioetsitako salmenta eraginkorren kopurua aurreko urteko hiruhileko berean antzemandakoa baino %97 handiagoa izan da, eta sustatzaileek eskainitako etxebizitzaren bolumena orduan antzemandakoa baino %3 handiagoa⁶.

⁶ Gogoan izan azterketa honetan sustatzaileengandik zuzenean jasotako eskaintza soilik hartzen dela aintzat eta, hortaz, JIAen eskuetan dagoen etxe berrien eskaintza ez dela kontuan hartzen.

3.2. grafikoa. Sustapen libreetan barne hartutako etxebizitzaren eta salgai dauden etxebizitzaren kopuruen bilakaera.



3.2. taula. Salmenten bilakaera eta erregimen libreko etxebizitzaren stockaren iraupena. **

		<i>Azken hiruhilekoan saldutako etxebizitzaren %, aurreko hiruhilekoko eskaintzarekiko</i>	<i>Salmenten aldakuntzaren %, aurreko urteko hiruhileko berarekiko</i>	<i>Eskaintza-bolumenaren aldakuntzaren %, aurreko urteko hiruhileko berarekiko</i>	<i>Stockaren iraupena (hilabeteak) (egungo salmenta-erritmoan)</i>
1998	III	41,0	-3,1	-25,7	7
	IV	49,1	-26,3	-9,8	7
1999	I	55,1	8,6	28,0	8
	II	42,2	29,4	39,3	8
	III	58,0	97,4	3,4	4

(): Sustatzaileek zuzenean eskainitakoak.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 1999ko 3. hiruhilekoa.

3.3. taula. Erregimen libreko sustapenetan barne hartutako etxebizitzien bilakaera.*

	<i>ETXEBIZITZAK GUZTIRA</i>	<i>SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZAK</i>	<i>SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZEN % GUZTIZKOAREN /G.</i>
1994 Batez b.	3.199	1.612	50,3
1995 Batez b.	4.573	1.734	38,0
1996 Batez b.	6.527	2.321	35,5
1997 Batez b.	6.679	2.393	35,8
1998 Batez b.	4.813	1.911	39,7
1998 III	4.867	1.790	36,8
IV	4.522	1.908	42,2
1999 I	4.976	2.519	50,7
II	5.909	2.755	46,6
III	3.710	1.851	49,9

(*): Sustatzaileek zuzenean eskainitakoak.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 1999ko 3. hiruhilekoa.

3.1.3. Salgai dauden etxebizitza berrien ezaugarriak eta koantifikazioa

- ρ 1999. urteko hirugarren hiruhilekoari dagokion inkestaren arabera **salgai dauden etxebizitza berrien guztizko kopurua** (libreak eta babestuek) 4.004 unitatekoa da. Guztizko honetatik %94 sustatzaileei egindako inkestaren bitartez antzeman dira, eta gainerako %6 etxebizitza berriak sustatzailearen kontura merkaturatzen dituzten agentzia inbiliarioetan bildutako informaziotik datoz.
- ρ **Lurraldeei** dagozkien portzentaiak ondokoak dira: Arabak eskaintzaren %17 zurgatzen du, Gipuzkoak %37 eta Bizkaiak %45.
- ρ Salgai dauden etxebizitza berrien **sustapen-erregimenaren** araberrako banaketa ondorengoa da: %52 libreak, %28 babes ofizialekoak eta gainerako %20 gizarte-etxebizitzak dira.
- ρ Hiruhileko honetan antzemandako salgai dauden etxebizitza berrien **bolumen** globala duela urtebete lortutakoarekin **konparatzen** badugu, Gipuzkoak murriztapen txiki bat izan duela ikus daiteke (-%4), Araban izandako igoerari (+%17) eta, batez ere, Bizkaian izandakoari (+%38) nabarmenki kontrajartzen zaiona.

- ρ Eskaintza berria osatzen duten bi modalitateak bereizten baditugu, eskaintza babestuak hiru lurraldeetan gora egin duela ikus daiteke, baina igoera izugarria izan da (+%70etik gorakoa) Bizkaian; erregimen libreari dagokionez, azpimarratzekoa da, alde batetik, Gipuzkoan antzemandako murriztapena (-%11), Bizkaian egiaztatu den igoera garrantzitsuarekin kontrastatuz (+%18); Araban, bestalde, egonkor jarraitzen du orain dela urtebete antzemandako eskaintzak.
- ρ Bestalde, **salgai dauden etxebizitza libreen eskaintzaren berrikuntza-indizea** (hiruhilekoa), hau da, hiruhileko honetan antzemandako etxebizitzek eskaintza osoaren (sustatzaileen edo JIAen bitartez) gainean duten portzentaia, %41ekoa da (portzentaia %21ekoa zen duela urtebete).

3.4. taula. Salgai dauden etxebizitza berriak lurralde historikoa.

	GUZTIRA		BO/GIZ. ETX.		LIBREAK	
	Kopurua	± % (*)	Kopurua	± % (*)	Kopurua	± % (*)
Araba	699	17,3	484	27,0	215	0,0
Gipuzkoa	1.489	-4,2	603	6,9	886	-10,6
Bizkaia	1.816	37,7	843	71,7	973	17,5
EAE.....	4.004	15,4	1.930	34,4	2.074	2,0

(*): Etxebizitza-kopuruaren aldakuntza, aurreko urteko hiruhileko berarekin konparatuta.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 1999ko 3. hiruhilekoa.

- ρ **Eraikuntza-faseari** dagokionez, berriz ere arreta sustapen *libreetan* jartzen badugu, antzemandako salgai dauden etxebizitza guztien %73 obra-fasean daudela eta %27 oraindik proiektu-fasean daudela ikus dezakegu. 3.3. grafikoan azalduta dagoen bezalaxe, merkatuaren dinamismoak bizkortu egin du eraikuntza-prozesua eta salmentei dagokiena; honen guztiaren ondorioz, "plano gaineko" edo proiektu-faseko eskaintzak gero eta garrantzi erlatibo handiagoa du, bukatutako etxebizitzek antzemandako eskaintzan duten pisu erlatiboaren kalterako.
- ρ Salgai dauden etxebizitza berrien **tipologiari** dagokionez, %8 baino ez dira familiabakarrak/familiabikoak edo adosatuak (%15 etxebizitza libreak bakarrik kontuan hartzen baditugu).

- ρ Salgai dauden etxebizitza berrien **batez besteko tamaina** 84 m²-ko azalera erabilgarrikoa da; babestutakoen batez bestekoa, berriz, 76 m²-koa da (71 m² duela urtebete), eta libreen kasuan batez bestekoa 92 m²-koa da (82 m² 98-III hiruhilekoan). Lurraldeka, etxebizitza berri libreek 94 m²-ko azalera dute Gipuzkoan, 91 m²-koa Bizkaian eta 83 m²-koa Araban.
- ρ Hiruhileko honetan antzemandako sustapen libreen (sustapenik berrienak) ezaugarri batzuk eta aztergai ditugun sustapen guztien osotasunak dituenak konparatzen baditugu, diferentzia nabarmenik ez dagoela egiazta daiteke; hala eta guztiz ere, hiruhileko honetan antzemandakoen artean pisu handixeagoa dute familiabakarra/familiabikoa/adosatua modalitatekoek etxebizitza kolektiboaren edota blokekoaren aurrean; halaber, apartamentuek portzentaia handixeagoa kontzentratzen dute eta, azkenik, espero zitekeen bezalaxe, oraindik proiektu-fasean dauden etxebizitzek protagonismo handiagoa dute orain.


3.5. taula. Salgai dauden etxebizitza berrien ezaugarriak.

	BO/GIZARTE- ETXEBIZITZAK (%)	ETXEBIZITZA LIBREAK (%)			
		EAE	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
TIPOLOGIA *					
Familiabakarra/Familiabikoa..	1,8	15,0	42,8	10,3	12,4
Kolektiboa	98,2	85,0	57,2	89,7	87,6
AZALERA ERABILGARRIA					
< 60 m ²	15,6	4,4	4,2	5,3	3,7
61-75 m ²	26,7	12,3	9,3	18,2	7,7
76-90 m ²	57,7	31,0	38,1	21,4	38,1
91-120 m ²	0,0	39,2	9,3	42,2	43,2
> 120 m ²	0,0	13,0	39,1	12,9	7,3
ERAIKUNTZA-FASEA *					
Bukatuta.....	3,0	0,6	0,0	1,4	0,0
Obran	77,5	72,7	64,2	68,2	79,3
Proiektuan	19,6	26,7	35,8	30,4	20,7


(*): Agentzia inmobiliarioetan merkaturatutako sustapenetako etxebizitzei buruzko informaziorik ez da barne hartzen.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 1999ko 3. hiruhilekoa.

3.3. grafikoa. Salgai dauden etxebizitza berri libreen ezaugarriak.



3.4. grafikoa. Eskaintza libre osoaren eta hiruhilekoan lehen aldiz antzemandakoaren ezaugarrien konparazioa.



3.1.4. Salgai dauden etxebizitza berriak prezioen arabera

- ρ EAEko **etxebizitza berri libreen metro karratu erabilgarriko batez besteko prezioa** 272.000 pezetakoa da; beraz, duela urtebete (1998ko hirugarren hiruhilekoan) lortutako balioa baino %12 handiagoa da gutxi gorabehera.
- ρ **Hiruhileko honetan lehen aldiz jaso edo antzemandako** etxebizitza berri libreen prezioak⁷ aztergai dugun burtsa inmobiliarioan barne hartutako eskaintza globalarenak baino %6 garestiagoak dira batez beste: 288.000 pezeta/m² erabilgarri.
- ρ Lurraldeei dagokienez, azpimarratzekoa da kasu honetan Arabak baliorik txikiena lortzea (244.000 pezeta/m² erabilgarri), duela urtebete berari baitzegokion baliorik handiena. Beste bi lurraldeetako kopuruak ia berdinak dira, 270.000 pezeta/m² erabilgarri ingurukoak.
- ρ Prezioen sailkapenean joan den urtetik hona izandako aldaketa drastikoa, batez ere Arabari dagokiona, lurralde honetan egungo eskaintza 1998ko hirugarren hiruhilekoan antzemandakoa baino %28 merkeagoa izatearen ondorio da; Gipuzkoa eta Bizkaian, aldiz, joan den urtean baino garestiagoa da (+%17 eta +%13 hurrenez hurren). Dena den, Arabako lurraldean antzemandako batez besteko prezio txikiago horretan bertako eskaintzaren kokapen geografikoa aldatu izanak ere badu eragina; izan ere, duela urtebete salgai zeuden etxebizitza berri libreen %44 Gasteizen zeuden eta orain portzentaia hori %25ekoa besterik ez da. Jakina, hiriburuen protagonismo txikiago honek (etxebizitzak garestiagoak dira hiriburuan gainerako udalerrietan baino) eragin handia du lurraldeko batez besteko prezioetan. Hala eta guztiz ere, 5. kapituluan ikus daitekeen bezalaxe, Arabako hiriburuan kokatutako etxebizitza berri libreen eskaintza ez da duela urtebete antzemandakoa bezain garestia.
- ρ **Etxebizitza babestuari** dagokionez, metro karratu erabilgarriko batez besteko prezioa 125.000 pezetakoa da, babes ofizialeko etxebizitzetarako 151.000 pezeta/m² prezioaren eta gizarte-etxebizitzetarako 91.000 pezeta/m²

⁷ Berriki hasitakoei dagozkie batik bat.

prezioaren artean haztatutako emaitza. Lurraldeka, babes ofizialekoek osatzen duten tartea Bizkaiko 145.000 pezeta/m² eta Gipuzkoako 157.000 pezeta/m² bitartekoa da.


ρ **Eredu-etxebizitzaren** (etxebizitza berria eta sustapen librekoa, eraikin kolektiboan kokatua, sustatzaileak zuzenean eskainitakoa, akabera "normalekoa" eta 60 eta 90 m² bitarteko azalera duena) prezioa Euskal Autonomia Erkidegoan eskainitako etxebizitza berri librearen batez besteko prezio globala baino %17 merkeagoa da hiruhileko honetan.

3.6. taula. Salgai dauden etxebizitza berrien m² erabilgarriko prezioa lurralde historikoen arabera.


	BO/GIZARTE-ETXE BIZITZAK		LIBREAK	
	<i>Mila pezetatan</i>	<i>± % (*)</i>	<i>Mila pezetatan</i>	<i>± % (*)</i>
<i>Araba.....</i>	120	41,2	244	-28,4
<i>Gipuzkoa.....</i>	133	26,7	273	17,2
<i>Bizkaia.....</i>	123	2,5	274	12,8
<i>EAE.....</i>	125	19,0	272	11,9

(*): Aurreko urteko hiruhileko bereko prezioekiko aldakuntza.
Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 1999ko 3. hiruhilekoa.

3.5. grafikoa. Etxebizitza berri libreen m²-ko prezioa, lurralde historikoen arabera.



3.6. grafikoa. Salgai dauden etxebizitza berri libre guztien eta hiruhileko bakoitzean antzemandakoaren m²-ko prezioaren bilakaera.



3.7. taula. Etxebizitza berri libreen m² erabilgarriko prezioa ezaugarrien arabera.


	Mila pezeta/ m ²
ERAIKUNTZA-MOTA	
Familiabakarra/familiabikoa	265
Kolektiboa	269
AKABERA *	
Luxuzkoa	330
Goi-mailakoa	277
Normala	232
Behe-mailakoa	--
AZALERA ERABILGARRIA	
< 60 m ²	316
61-75 m ²	293
76-90 m ²	269
91-120 m ²	260
> 120 m ²	271
ESKAINTZAN EGON DEN DENBORA - MERKATURATZEKO MODUA	
Hiruhileko honetan sustatzaileak zuzenean	284

Hiruhileko honetan JIA bidez	303
Aurreko hiruhilekoetan sustatzaileak zuzenean	261
Aurreko hiruhilekoetan JIA bidez	261
EREDU-ETXEBIZITZA	225

(*): JIAen bidez merkaturatutako sustapenei buruzko informaziorik ez da barne hartzen.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 1999ko 3. hiruhilekoa.

3.7. grafikoa. Etxebizitza berri librean m² erabilgarriko prezioa ezaugarrien arabera.



- ρ 1999ko hirugarren hiruhilekoan **etxebizitza berri librearen batez besteko prezioa** 25,1 milioi pezetakoa da, hots, duela urtebete baino %24 handiagoa gutxi gorabehera. Metro karratuko prezioari buruz adierazitakoarekin bat etorriz, Arabako etxebizitza bakoitzeko prezioak %33 txikiagoak dira eta Gipuzkoan eta Bizkaian bilakaera alderantzizkoa izan da, %33 eta %27ko iguera-tasak izan baitituzte hurrenez hurren.
- ρ **Babestutako etxebizitzaren batez besteko prezioa** 9,6 milioi pezetakoa da, Gipuzkoako 10,9 milioi pezetako gehienekoaren eta Bizkaiko 8,8 milioi pezetako gutxienekoaren artean.

3.8. taula. Salgai dauden etxebizitza berrien prezioa lurralde historikoen arabera.

	BO/GIZARTE-ETXEB.		LIBREAK	
	Miloi PTA	± % (*)	Miloi PTA	± % (*)
Araba	9,3	55,0	20,3	-32,6
Gipuzkoa.....	10,9	39,7	25,5	32,8
Bizkaia.....	8,8	6,0	25,4	27,0
EAE.....	9,6	28,0	25,1	24,3

(*): Aurreko urteko hiruhileko bereko prezioekiko aldakuntza.
Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 1999ko 3. hiruhilekoa.

3.9. taula. Salgai dauden etxebizitza berrien banaketa prezio-tarteen arabera.

PREZIOA	BO/GIZARTE-ETXEB. (%)	ETXEBIZITZA LIBREAK (%)			
		EAE	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
< 9 milioi pezeta.....	46,6	0,0	0,0	0,0	0,0
9 - 12 milioi pezeta	31,8	1,5	12,6	0,6	0,0
12 - 16 milioi pezeta.....	21,7	5,4	14,4	6,1	2,9
16 - 20 milioi pezeta.....	0,0	15,8	6,0	20,4	13,8
20 - 25 milioi pezeta.....	0,0	27,4	10,7	21,7	36,4
25 - 30 milioi pezeta.....	0,0	25,4	11,6	30,0	24,2
30 - 50 milioi pezeta.....	0,0	21,7	44,7	15,0	22,7
50 milioi pezetatik gora.....	0,0	2,7	0,0	6,2	0,1
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0


Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 1999ko 3. hiruhilekoa.

- ρ Salgai dauden etxebizitza berrien eskaintzaren **prezioen banaketak** izan duen bilakaerari dagokionez, 1998ko hirugarren hiruhilekoan antzemandako egoerarekiko diferentzia nabarmenak daudela egiazta daiteke. Hain zuzen ere, segmentu babestuan eskaintza prezio altuagoetarantz mugitu dela ikus daiteke; izan ere, duela urtebete salgai zeuden etxebizitza babestuen %73k ez zuten 9 milioi pezetako prezioa gainditzen eta orain portzentaia hori %47koa besterik ez da; horren kontrapartida gisa, 9 eta 12 milioi pezeta bitarteko etxebizitzen pisu erlatiboak gora egin du (%23tik %32raino) eta, gainera, 12 milioi pezetatik gorako prezioa duen %22ko eskaintza babestua azaleratzen da.
- ρ Sektore librean ere aldaketa garrantzitsuak egiaztatzen dira Euskal Autonomia Erkidegoan eskaintzaren prezioen egiturari: 25 milioi pezetatik gorako

etxebizitzaren pisu erlatiboa %27koa zen 1998ko hirugarren hiruhilekoan eta orain ia %50eraino igo da.

- ρ Sektore librea arretaz aztertzen jarraitzen badugu, lurralde-mailan atentzioa ematen du Arabako prezioen "bipolarizazioak", 16 milioi pezetatik beherako etxebizitzaren proportziorik handiena kontzentratzen duen aldi berean (%27, Gipuzkoak %7 eta Bizkaiak %3), 30 milioi pezetatik gorako prezioa duten etxebizitzaren portzentaia handiena dagokion lurraldea baita (%45, Gipuzkoak %21 eta Bizkaiak %23). Halaber, prezioen araberrako eskaintzaren banaketak Bizkaiko merkatuaren "berotze" nabarmena islatzen du: duela urtebete eskaintzaren %6k bakarrik gainditzen zuen 30 milioi pezetako prezioa eta orain salgai dauden etxebizitzaren %23k gainditzen dute.

3.8. grafikoa. 12 milioi pezetatik beherako etxebizitzaren berri libreen pisu erlatiboa, lurraldeen arabera.



3.2. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA ERABILIAK

3.2.1. Koantifikazioa eta ezaugarriak

- ρ 1999ko hirugarren hiruhilekoan egindako inkestaren bitartez jasotako salgai dauden bigarren eskuko **etxebizitzaren kopurua** 4.325 unitatekoa da. **Lurralde historikoen mailako banaketa geografikoa** hauxe da: Arabak eskaintza-mota honen %24 biltzen du, Gipuzkoak %17 eta Bizkaiak %59.
- ρ Termino absolutuetan, eskaintako bolumenak hiru lurraldeetan egin du behera duela urtebeteko datuekin konparatuz; beherakada hori bereziki nabarmena izan da Bizkaian (-%44) eta Gipuzkoan (-%41) eta dezente txikiagoa Araban (-%18). Eskariaren zabalkuntza eta honen ondoriozko salmenten bizkortzea dira eskaintzaren murriztapen zorrotz hau argi dezaketen faktore nagusiak.
- ρ Jaso dugun etxebizitza erabilien **batez besteko azalera erabilgarria** 92 m²-koa da EAE osoan. Bizkaiko batez besteko tamaina 89 m²-koa da, Arabakoaren oso antzekoa, 90 m²-koa baita batez beste; Gipuzkoari dagokio baliorik handiena: 97 m².

3.10. taula. **Salgai dauden etxebizitza erabiliak eta prezioak lurralde historikoka.**

	ETXEBIZITZAK		PREZIOA/ m ² erabilg.		PREZIOA/ETXEBIZITZA	
	Kopurua	± % (*)	Mila PTA/m ²	± % (*)	Miloi PTA	± % (*)
Araba	1.033	-18,0	403	25,2	33,9	35,1
Gipuzkoa	752	-40,5	374	31,2	35,1	28,1
Bizkaia	2.540	-43,9	267	34,8	22,1	20,1
EAE.....	4.325	-38,7	317	36,6	27,0	29,2

(*): Aurreko urteko hiruhileko bereko kopuruarekiko aldakuntza.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 1999ko 3. hiruhilekoa.

3.11. taula. Salgai dauden etxebizitza erabilien ezaugarriak.


	EAE (%)	ARABA (%)	GIPUZKOA (%)	BIZKAIA (%)
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0
TIPOLOGIA				
<i>Familiabakarra/Familiabikoa....</i>	2,8	1,2	10,6	1,2
<i>Kolektiboa</i>	97,2	98,8	89,4	98,8
AZALERA ERABILGARRIA				
<i>< 60 m².....</i>	17,9	17,0	16,6	18,6
<i>61-75 m².....</i>	25,2	21,4	17,7	29,0
<i>76-90 m².....</i>	27,2	33,0	19,8	27,0
<i>91-120 m².....</i>	18,1	19,6	19,9	16,9
<i>> 120 m².....</i>	11,7	9,0	25,9	8,6

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 1999ko 3. hiruhilekoa.

3.2.2. Salgai dauden etxebizitza erabilien prezioak

- ρ Salgai dauden bigarren eskuko etxebizitzaren **metro karratu erabilgarriko batez besteko prezioa** 317.000 pezetakoa da, hau da, aurreko urteko hirugarren hiruhilekoan lortutakoa baino %37 garestiagoa. Etxebizitza berri libreekin konparatuta, orokorrean etxebizitza erabiliak ia %17 garestiagoak dira batez beste.
- ρ **Lurraldeei dagokienez**, batez besteko prezioen diferentziak oso nabarmenak dira: Arabari dagokio baliorik handiena, izan ere kasu honetan 400.000 pezeta/m² prezioaren muga gainditzera iritsi baita, Gipuzkoa dago bigarren tokian, hau ere oso batez besteko handiarekin, 374.000 pezeta/m², eta Bizkaia oso atzean geratzen da askoz ere batez besteko txikiagoarekin: 267.000 pezeta/m² erabilgarri.
- ρ Bilakaeraren ikuspuntutik, hiru lurraldeek benetan igoera-tasa handiak izan dituzte duela urtebetetik hona: Arabako +%25etik Bizkaiko +%35era bitartean mugitzen dira.
- ρ **Etxebizitza bakoitzeko prezioari** dagokionez, EAE osorako lortzen dugun batez besteko balioa 27 milioi pezetakoa da. Kasu honetan Gipuzkoa da baliorik handiena duena (35,1 milioi pezeta), Araba oso hurbil dauka (33,9 milioi pezeta) eta Bizkaia, berriz, oso urrun geratzen da (22,1 milioi pezeta).

3.9. grafikoa. Etxebizitza erabilien m²-ko prezioa, lurralde historikoen arabera.



ρ **Prezio-tarteen arabera** egin den etxebizitza erabilien **banaketak** aldaketa drastikoak erakusten ditu duela urtebete antzemandako prezioen egiturarekin konparatuta. Izan ere, gaur egun salgai dauden etxebizitza erabilien %7 baino ez dira 12 milioi pezeta baino gutxiago balio dutenak eta portzentaia hori %24koa zen 1998ko hirugarren hiruhilekoan. Lurraldeei dagokienez, Bizkaiko kasua bereziki nabarmena da, lurralde honetan 12 milioi pezetatik beherako etxebizitzak duela urtebete eskaintza osoaren %32 hartzen baitzuten eta orain %8 baino ez dira.

ρ Beste muturrean, 30 milioi pezetatik gorako prezioa duten etxebizitzek eskaintza osoaren %36 hartzen dute orain eta duela urtebete beren pisu erlatiboa ez zen %17ra iristen. Arabako kasuan⁸, salgai dauden 10 etxebizitzatik 6k kopuru hori gainditzen dute; Bizkaian eta Gipuzkoan ere oso igoera adierazgarria izan du etxebizitza-mota honen pisu erlatiboak, baina Arabakoa baino askoz ere apalagoa.


⁸ Hala eta guztiz ere, hiriburuak lurralde honetan Gipuzkoan eta Bizkaian baino gainerrepresentazio handiagoa duela kontuan izan behar da.

3.12. taula. Salgai dauden etxebizitza erabilien banaketa prezio-tarteen arabera.

PREZIOA	EAE (%)	ARABA (%)	GIPUZKOA (%)	BIZKAIA (%)
< 9 milioi pezeta.....	2,5	0,5	6,6	2,0
9 - 12 milioi pezeta.....	4,9	1,4	5,7	6,1
12 - 16 milioi pezeta.....	11,0	2,3	8,2	15,3
16 - 20 milioi pezeta.....	14,5	6,1	8,8	19,5
20 - 25 milioi pezeta.....	15,9	13,5	9,4	18,8
25 - 30 milioi pezeta.....	14,8	16,2	7,3	16,5
30 - 50 milioi pezeta.....	25,6	52,2	26,2	14,6
50 milioi pezetatik gora..	10,8	7,8	27,7	7,0
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 1999ko 3. hiruhilekoa.

3.10. grafikoa. Etxebizitza erabilien banaketa, prezio-tarteen arabera.



4. kapitulua

ALOKATZEKO DAUDEN ETXE BIZITZAK

4. ALOKATZEKO DAUDEN ETXEBIZITZAK

- ρ 1999ko hirugarren hiruhilekoan JIAei eta sustatzaileei egindako inkestan antzemandako **alokatzeko dauden** egoitza nagusi izatera destinatutako **etxebizitzaren kopurua** 1.073 unitatekoa da. Hauetatik, 906 etxebizitza (%84) bigarren eskuko etxebizitzak (libreak) dira eta gainerako 167 etxebizitzak eraikuntza berriko gizarte-etxebizitzak dira (119 Gasteizen daude eta 48 Donostian).
- ρ Alokatzeko dauden etxebizitza libreen eskaintzak murriztapen handia izan du orokorrean (-%37), duela urtebete lortutako kopuruarekin konparatzen badugu. Dena den, joera desberdinak antzematen dira lurralde batetik bestera: Araban eta Bizkaian eskaintzak murriztapen zorrotza izan du eta Gipuzkoan, asko ez bada ere, gora egin du alokatzeko dauden etxebizitzaren bolumenak (+%6).
- ρ **Tipologiari** dagokionez, aurreko edizioetan bezalaxe, eraikin kolektiboetan, hots, blokeetan kokatuta dauden etxebizitzek alokatzeko dauden etxebizitzaren eskaintza osoa osatzen dute ia.
- ρ Alokatzeko libreako etxebizitzaren **batez besteko tamaina** 84 m² erabilgarrikoa da, Arabako 94 m² eta Bizkaiko 82 m² artean. Alokatzeko eskainitako gizarte-etxebizitzek, bestalde, 75 m²-ko azalera erabilgarria dute batez beste.
- ρ Hiruhileko honetan lortutako merkatu libreako batez besteko **hileko errenta** 95.000 pezetakoa da, hau da, duela urtebete antzemandako batez bestekoa baino %10 handiagoa gutxi gorabehera; lurraldez lurralde, Gipuzkoari dagokio igoera-tasarik handiena (+%14), Araban eta Bizkaian (+%7) lortutakoaren bikoitza.
- ρ Maila absolutuei dagokienez, hauexek dira **lurraldeetan** antzeman diren hileko **errentak**: Araban dago batez besteko errenta handiena (107.000 pezeta), Gipuzkoakoaren antzekoa (104.000 pezeta) eta Bizkaikoa hauetatik oso urrun dago (87.000 pezeta/hil).
- ρ Eskainitako **gizarte-etxebizitzaren** batez besteko errenta hileko 26.000 pezetakoa da (Gasteizko eskaintzaren hileko 27.000 pezetako batez

bestekoaren eta Gipuzkoako hiriburuko 24.000 pezetakoaren artean mugitzen da).


4.1. taula. Alokatzeko libreen eskaintako etxebizitzak eta errentak lurralde historikokoak.

	ALOKATZE LIBREA		HILEKO ERRENTA	
	Etxebizitza-kop.	± % (*)	Mila PTA	± % (*)
Araba.....	142	-53,6	107	7,0
Gipuzkoa.....	275	6,2	104	14,3
Bizkaia.....	489	-44,4	87	7,4
EAE.....	906	-37,3	95	10,5

(*): Aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldakuntza. Aurreko urteko JIAen lagin-oinarri beraren gainean kalkulatu.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 1999ko 3. hiruhilekoa.

4.1. grafikoa. Alokatzeko libreen batez besteko errenten bilakaera, lurralde historikoen arabera.



4.2. taula. Alokatzeko eskaintako etxebizitza libreen ezaugarriak.

	EAE (%)	ARABA (%)	GIPUZKOA (%)	BIZKAIA (%)
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0
AZALERA				
< 60 m ²	9,5	7,7	10,5	9,4
61-75 m ²	28,5	17,6	27,6	32,1
76-90 m ²	30,9	35,9	29,8	30,1
91-120 m ²	21,7	26,1	25,1	18,6
> 120 m ²	9,4	12,7	6,9	9,8
HILEKO ERRENTA				
25.000 PTA edo gutxiago.....	0,0	0,0	0,0	0,0
25.001 - 40.000 PTA.....	0,2	0,0	0,7	0,0
40.001 - 75.000 PTA.....	27,5	10,6	26,9	32,7
75.001 - 100.000 PTA.....	39,4	45,8	31,3	42,1
100.000 PTA baino gehiago....	32,9	43,7	41,1	25,2

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 1999ko 3. hiruhilekoa.

5. kapitulua

ETXEBIZITZA LIBREEN ESKAINTZA EREMU GEOGRAFIKOEN ARABERA

5. ETXEBIZITZA LIBREEN ESKAINTZA EREMU GEOGRAFIKOEN ARABERA⁹

5.1. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA BERRI LIBREAK

a) Eskaintako etxebizitza-kopurua

- ρ Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan salgai dauden etxebizitza berri libreen kopurua (277 etxebizitza) oso txikia da; duela urtebete antzemandako kopurua (468 etxebizitza) baino %41 txikiagoa da eta EAE osoan antzemandako eskaintza libre osoaren %13 biltzen du (%23 duela urtebete).
- ρ Gasteiz eta Bilbok oso murriztapen handia izan dute eskaintzan duela urtebetetik hona. Donostian, ordea, etxebizitza berri libreen eskaintzaren bolumenak ia berdin jarraitzen du.
- ρ Hiriburuetakoko eskualde-egituretako udalerriek osatzen duten eremuari (hiriburuak kanpo) dagokion eskaintzak igoera handia izan du (+%28) eta duela urtebete baino protagonismo handiagoa du orain (eskaintza osoaren %44 biltzen du orain eta portzentaia hori %35ekoa zen duela urtebete). Egia esan, igoera hori Bilboko eskualde-egiturako udalerrietako eskaintzak izan duen portaeraren ondorio da, ia bikoiztu egin baitu bere eskaintzaren bolumena (640 etxebizitza eta duela urtebete 347).
- ρ Hiriburuetakoko eskualde-egiturez kanpoko udalerriek osatzen duten espazio geografikoan eskaintza osoaren %34 kontzentratzen da; urteko aldakuntza-tasari dagokionez, igoera txikia izan dela egiazta daiteke (+%3).


